

Lagun berria

- Bueno, bada, hau da logela.
- Uau, oso-oso polita da! Orduan... hau nire logela da?
- Bai, noski!
- Pisukideak?
- Pisukideak!
- Kaixo, Lier! Zenbat urte dituzu?
- 21 urte ditut. Eta zuk?
- Nik 20 urte ditut, eta Donostian bizi naiz, baina Boisekoa naiz.
- Boisekoa? Boiseko jaialdia famatua da.
- Uau! Ezagutzen duzu Boiseko jaialdia?
- Bai, sare sozialetan famatua da! Eta zure familia Boisen bizi da?
- Bai, denak bizi dira han, Boisen: gurasoak, aitona-amonak, izeba-osabak... Baina denak euskaldunak dira!
- Orduan, euskaldun-amerikarra zara! Eta fisikoki zer zara, amerikarra ala euskalduna? Ilehoria zara eta begi urdinak dituzu, ala ile beltza eta begi marroiak dituzu?
- Bada... Fisikoki euskalduna naiz: ile beltza eta luzea dut, eta begi marroiak ditut.
- Eta baduzu tatuajerik? Nik ez.
- Nik bai; nik bi tatuaje ditut.
- O, Lier...!
- Xabi! Ni mendizalea eta surfzalea naiz. Zu?
- Bada... Nire anaia surfzalea da, baina ni ez.
- Anaia bat duzu?
- Bai, anaia bikia. Baina oooooo diferenteak gara.
- Zuk ile beltza duzu, eta hura burusoila da?
- Ez pasa! Bera surfzalea da, eta ni, ba... Sofazalea!
- O, Lier...!
- 17:00etan parkean?
- Ai, ze lotsa! Bai. Gero arte!
- Xabi!?
- E... Xabi ezagutzen duzu?
- Zu zara Xabi!
- Ez, ni Lier naiz. Xabi nire anaia bikia da.
- Benetan?? Ai, barkatu. Kaixo, ni Boise.
- Ni Lier.